



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ausartuko ote gara oraingoan?

Euskara maila kaskarra dute ikasleek, inoizko kaskarre-na. Eusko Jaurlaritzako Irakas Sistema Ebaluatzeako eta Ikertzeako erakundeak, ISEIk, 2015ean eginiko ebaluazio diagnostikoaren ondorioa da hori. Ebaluazioa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diru publiko finantzatutako hezigune guztietako ikasleen konpetentzia maila ezagutzeko tresna da, bi urtez behin egiten dena. Bertan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako (10 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako (14 urte) neska-mutilek hartu dute parte. Haien hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eta zientzia-kulturako eta matematikako konpetentziak aztertu dira. Zientziako atalean salbu, gainerakoetan jaitciera izan dute emaitzek.

Kezkagarriak dira oso datuak. Hizkuntza konpetentziari dagokionez, eskolatik ateratzean ikasleak eleaniztunak izatea da helburua. Bestalde, euskararen bizi-raupena eta normalizazioa bermatzea ziurtatu nahi bada, ikasleek euskaldun eleaniztunak izan beharko dute, euskara hizkuntza gutxitua den heinean. Euskara arloan, ebaluazioa egiten hasi zenetik 2009an, emaitzarik eskasak izan dira: gutxieneko maila lortu ez duten 10 urteko ikasleak %36 dira eta %46, berriz, 14 urtekoak; horren ondoren, maila aurreratua erdietsi dutenak sekula baino gutxiago dira: %26 gazteenak eta %16 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. Zenbakiek diote, gainera, bilakaera negatiboena euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ematen ari dela; izan ere, aurrekoetan baino emaitza okerragoak izan dituzten heziguneen kopurua hobetu dituztenen bikoitza baino gehiago da.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburak Legebiltzarrean hitz egin du eta lehendik bagenekiena esan du: eskolak bakarrik ezin du, eta D ereduak ez du bermatzen ikasleek euskaraz nahikoa gaitasun izango dutenik. Aldaketak egin beharko direla dio, didaktikarekin lotutakoak, eskola mailakoak, alegia.

Zoritxarrez ez da lehen aldia ISEIk egin-dako azterketek agertu dutela aplikatzen ari diren hizkuntzak irakatsi, ikasi eta ebaluatzeako ereduak ez direla eraginko-

rrak. Euskarako B2 maila, nahiko oinarri-ko maila, aztertu zuen 2005ean derrigo-rrezko hezkuntzaren amaierako (16 urte) ikasle lagin batean: A ereduko inork ez zuen gainditu, B ereduko %27k eta D ereduko %57k gainditu zuten, soilik.

Orduko azterketak izan zuen eragina Legebiltzarrean. Egia esan, ereduaren sistemen porrotak ezin zuen besterik eskatu. Egoera gainditzeko lege berri bat jorratzen hasi ziren, tartean Euskaren Kontseiluak aurretik egindako bidearen emaitza gisa ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko proposamena egin zuen 2007an. Baina politikariak aldatu ziren Gasteizen, eta ordutik, A, B eta D eredu agortuen bidetik jarraitzen dute hiru herrialde horietan, ikerketek erakutsi duten arren legeak agindutakoari iruzur egiten ari gara.

Ebaluazio diagnostikoa bada hezigune-etan aplikatzen diren euskararekiko eta beste hizkuntzekiko irakaskuntzen eta ikaskuntzen politiken bilakaera ikusteko adierazlea, batek galdetzen dio bere buruari noiz arte itxaron beharko den beste politika batzuk ezar-tzeko. Orain arteko bideek badakigu no-

raino ekarri gaituzten, eta etengabe esaten ari zaizkigu, neurtzen ditugun bakoitzean, ezin dutela harago joan. Hezkuntza Saileko txokoren batean ahaztuta egongo da Kontseiluaren proposamena hautsak hartzen; eta, bien bitartean, ikasleen euskara neurketen emaitza bakoitza hautsak harrotzen! Itzuli-mitzulika jarrai genezake, baina jakin badakigu zein bide den merkeena, logikoena, kohesionatzaileena.

Hizkuntzak Irakatsi eta Ikasteko Marko berriaren ateetan egon ginen. Ez gaude, beraz, zero puntuan. Bidea ibiltzen hasi ginen, eta definitu ziren gakoak: euskara gutxi duenari eskolak euskara gehiago ematea, hizkuntza bakoitzean lortu beharreko maila finkatu eta ebaluatzea, Haur Hezkuntzan eta, batez ere, 0-3 zikloan murgiltze eta mantentze ereduak ezartzea, hizkuntza proiektuak osatzea, besteak beste.

Aurreko bateko galdera ekarriz, elea-niztasunak politikaz ala zientziaz ote duen, nago berriro erabaki politikoen baitan egongo dela... Ausartuko ote dira oraingoan? Heziguneetatik aterako diren belaunaldi berriak euskaldunak izango diren ala ez dago jokoan! •



Hezkuntzako hizkuntza ereduaren sistemak porrot egin du.

Oiarso LOS ARCOS | ARGAZKI PRESS